



C2 maila



Idazmen-proba

1. eredua



Idazmen-proba (ohikoa)

Egoera

UEUk urtero antolatzen ditu udako ikastaroak Baionan zein Iruñean. Datorren ekitaldian ikastaroa emango duzu zure espezialitateko gai bati buruz. UEUko arduradunek ikastaro horri buruzko informazio zabala jarri nahi dute erakundearen webgunean, gai horretan interesa izan dezakeen jendea erakartzeko asmoz.

Egitekoa

Idatzi aurkezpen-testua UEUren webgunean argitaratzeko, eskainiko duzun ikastaroari buruzko informazio zabala emanez. Horretaz gain, adierazi zein den ikastaroaren helburua eta, azkenik, argudioak eman arlo horretan dihardutenek ikastaroan izena eman dezaten.

Gutxieneko luzera: 350 hitz (gutxienez).

Probaren iraupena: 110 minutu (1 ordu eta 50 minutu).

Orrialde marradunetan idatzi.

Ohiko idazmen-proba balioesteko ebaluazio-irizpideak:

Egokitasuna

Eskatutako gai, solaskide eta xedearen araberako lotura. Solaskideen harreman-motari eta xedeari dagokion tonua. Lexikoaren modalizazioa. Espezialitatearen ikuspuntua.

Koherentzia

Idea nagusien eta lagungarrien hari logikoa. Diskurtsoaren egitura, garapena eta hurrenkera logikoa. Ideien osotasuna.

Kohesioa

Esaldi, paragrafo eta testu osoa elkarlotzeko testu-antolatzaileen erabilera eraginkorra. Puntuazio-sistema. Kohesio-mekanismoen erabilera: anaforak, ordezkapenak, elipsiak.

Aberastasuna

Hizkuntza-baliabideen ugaritasuna eta barietatea. Esaldi landuen eta horien baliokideen erabilera. Ordezkapen lexikalen erabilera.

Zuzentasuna

Gramatika-arauak: ortografia, kasu-markak, aditza, morfologia, sintaxia... Gaiari loturiko lexikoa.



Idazmen-proba (bitartekotza)

Egoera

Zure herrian joko-areto bat ireki berritan, Jokoaren Euskal Behatokiak egindako txostena iritsi zaizu. Txosten horretan zenbait datu kezkarri ageri dira gazteen jokabidearekin loturik. Batxilergoa ikasten ari den semea/alaba daukazu, eta horrek zure kezka areagotu baino ez du egin. Hori dela eta, herriko institutuko zuzendariari eskutitza idaztea erabaki duzu, batxilergoko ikasleentzako hitzaldiren bat abian jarri dezan, jokoak izan ditzakeen arriskuez ohartarazteko eta informazioa emateko.

Egitekoa

Idatzi eskutitza institutuko zuzendariari, behean duzun infografiako datuak eta horiek islatzen duten egoera argudio gisa erabiliz, institutuak batxilergoko ikasleentzako hitzaldi bat antola dezan, jokoak eragin ditzakeen ondorioen aurrean gazteak kontzientziatzeko eta horren arriskuez ohartarazteko.

Gutxieneko luzera: 150 hitz (erreferentzia gisa).

Probaren iraupena: 50 minutu.

Orrialde marradunetan idatzi.



Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Ebaluazio-irizpideak:

C2 mailako helburuak kontuan hartuta, bitartekotza-ariketa zuzentzeko irizpideak hauek dira:

Informazioaren kudeaketa

Testuko informazio garrantzitsuena identifikatu eta jaso du, eta beharrezko izan denean, bere adibide, iritzi, azalpen edota ñabardurekin osatu du.

Testuaren birformulazioa

Komunikazio-egoeraren eta xedearen arabera antolatu eta birformulatu du sorburu-testuko informazioa, eta horretarako, diskurtso eta komunikazio-estrategia egokiak baliatu ditu.

Erregistroaren aukeraketa

Kontuan hartu ditu mezu-hartzailearen aurre-ezagutzak, interesak, beharrak..., eta horietara egokitu ditu erregistroa eta estiloa, hizkera, egitura, esamolde eta lexiko egokiak erabiliz.

Hizkuntzaren erabilera

Hiztegi eta hizkuntza-baliabide aberatsak erabili ditu eta egoki baliatu ditu perpausak nahiz perpaus barruko osagaiak lotzeko mekanismoak, ongi kohesionatutako testua sortuz eta mezua eraginkortasunez ulertarazteko estrategiak erabiliz.



Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO